– Beila bat Gaun Doni Gakiy. –

„ Erzak Pettan! hani! hani!

– Zer duzu Amatchi? – Ikasia duka egungo katichima Kapitulua? – Ez, oraino, ez, gero ikasiko dut – Ba! hori! hori! gero, gero dionak, hamrd bego diok. Au! laster ikastey baduk ichtorioño bat khondatuko deat. „

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

katichima ikasi ondoan.

„ Hola! Pettan, hola! to harrak oiñoña bichi hau.

– Baniau, Amatchi; hitz emana ginduzutan ichtorio bat.

– Hala duk, jar hadi ttotto hortan.

..... Beraz behin baziran – „

Pettanek: „ Bethi behin baziran, behin, bertze ichtorio bat erradazut othoi, amatchi. „

– Amatchik: „ A jo bertze bat beraz:

Gure Aita zenari joan beharttu zitzaikoan beilarat. Dembora hetan „ Lurda „-ko eta bertzetako beilarik ez beitzen aiphu abiatu ziran Gaun Doni Gaki Espainia zokho hortako beilarat.

Goiz batez beraz gure Aitak, ichtupa chamar bat soinean, alphotchak bizkarrean, erran zatean: „ Juanaño! barda aiphatu bezala egun joanen gira Gaun Doni Gakirat,

itzultuko dugu noiz jitekerako giren, goazen orai erne ernea, sarri berotuko baitu!" Herriko gaun Erretorari gure bekhatuak arthoïtzetik lekhorat, horra nun johan giren, muthutsik, alphotchetan gure espartinak ezarri ondoan, eta deus jatekorik gabe.

Hego alderat abiatzen gituk, kurritzen egunaz eta zombeit aldiz gauaz, izar bati segituz. Bideak bizi gituk eskeetik, ethaunak har eta aitzinia kurri: batean jatez artho eta baratchuri edo tipula, edanez urago zombeit ur chirripetan, dembora betan gero jendea orai baino arruntkiago bizi zian, bertzean gophor esne zombeit edo artzainek emanikako talo 'ta gasna pochi batzu.

— Amatchi! baian ez zetzuiduten sosik?

— Ez, haurra, arditik, aphoak bilorik baino gehiago. Bertzalde gure dembaran bekatiarrak johan zitian eskalen moldean garraztki bizi Jainkoarengamik beren eta bertzen bekhatuen barkhamendua ardiesteko.

Urthe bat eta egun bat ibili ondoan mendiz mendi, oihanez oihan, aldapaz aldapa, ~~erre~~ usu errebelaturik edo ebaietan eta errepietan ezin berehala phasatuz, ethortzen gituk Jaun Doni Jakituat. Urrunetik ageri zitian eskila dorre eta ttutterrutta parrasta bat, eta harat bururatz johan gu bezala, jendeak, multzoka

orteta, beren buruen, gorphutz eta arima gaixoeri Jakiren arartekotasun botheretsuaren gerizan ezartzerat. Kalostrazpi batean gure espartiñak jauntzirik eta soinekuen erhautsa miharrosirik sartzen gitutk elizan.

Oi! Jh!, Eliza choragarria!

Marmolazko pilar, harroin gorri eta churiek, zilharrezko ezproinek, harrizko errai urhestatuek eta chirioen argiek hain bertzetaraino argitzen eta dirdiratzen zitean non bichta joan nahi beitzuten.

Kharitsuki othoitz labur bat egin ondoan joaiten gitutk aphez kofesar baten bilha. Lehenik kofesatean sartzen nut. Ene gostuko bekhatu guziak aithortu ondoan, horra non atheratzen den kofesora eta berriz sartzen erranez: "Ah! ene haurra, ez ditizu bekhatu guziak aithortu oraino.

— Baiñan! Aita, erraiten diat, ez dut uste bertzerik badutan.

— Trikaldi bat egin zazu."

Aphur baten buruan.

— " Ah! Aita! hunaratekoan chathur bat harrikatu dut satre handi bat erranez,... ...eta handichkoa da!..

— Athor, zazu haurra, lañoki.

— Erran datot chathurrari: "Debruek ereman ahal bute chiruri chiruri osto bezembat

4

bekhatarat"

Berriz kofesaleatik atheratu ondoan erraiten datak kofesorat: "Ai! ai! ai! ene haurra, ez ditutzu oraino bekhatu guziak aithortuak, zer egin duzu bada bide hortaz? zer jan eta edan duzu?
— Amoinez bilduak, aitari emaiten naiaz, artho mamia hortzik ez nuelakotz eta nihaurek jatez achalak"

Hainbertzenarekin arrabots bat egiten dut eta kofesorat erraiten datak:

"Hori bera bekhatu da, aitak behar nidarrak zuk hartu duzulakotz, ezen arthoak achaleari du nidarra, ogiak bezala. horrengatik, ez da bekhatu handia, bainan, ene haurra, badakizu askotaz ongirik ez egitea gaizki egitea dela. Kofesioa bat egina duzu, zeren ene kofesatearen gainean badut oilar bat hegaldatzen dena gainkoaren bothereaz bekhatoroek beren hutsak aithortu ditutzteneaz, eta tarrapata hori entzun duzun bezala orai airatu da. Beraz gainkoak zure bekhatu guziak barkhatzen dauzkitzu. Zoaz bakearekin ene haurra."

Ikusten dut, Pettan? behar direla aithortu Jainkoaren Aphezari bekhatu guziak. Habil orai jostatzerat".

25 juillet 1924.

P. L. Ayçaguer (Séminariste)
Demeurant à Bidache
B. P.